

Elkartek bi programa desberdin proposatuko ditu, batetik urteko programa bat sortuko dugu, bertan kirol desberdinak egiteko aukera egongo da; multikirolak. Bestetik asteke programa izango dugu, non bertan kirol bakarra egiteko aukera emango dugu eta hau finkoa izango da.

URTEKO PROGRAMA:

Erabiltzaile batzuek multikiroletan apuntatzeko aukera izango dute, honek esan nahi du, hilabete bakoitzean bi kirol desberdin egiteko aukera izango dutela. Aste bakoitzean kirol bat egingo dute eta 2 astero behin kirolez aldatuko dugu, horrela hileko bi kirol desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute. Ezarrita egongo diren kirolak ez dira finkoak izango, bezeroek kirolen bat proposatzen badute programa aldatu dezakegu eta kirol berria txertatu, beti ere hori gauzatzeko materialak eskura baditugu.

Astean 2 egunez arituko gara multikirolak egiten, Astearte eta Ostegunetan. Hau izango da 2024. urteko multikirolen kirol egutegia.

EGUTEGIA 2024

Urtarrila

Al As Az Og Or Ir Ig

Yoga eta taichi

Otsaila

Al As Az Og Or Ir Ig

**Dantzak, hip hop
eta zumba**

Martxoa

Al As Az Og Or Ir Ig

**Mendira joan eta
korrika aire freskora**

Apirila

Al As Az Og Or Ir Ig

Tenis eta pinpong

Maiatza

Al As Az Og Or Ir Ig

Rugby eta Karate

Ekaina

Al As Az Og Or Ir Ig

**Piraguak eta
Hordartzara joan**

Uztaila

Al As Az Og Or Ir Ig

Abuztua

Al As Az Og Or Ir Ig

Iraila

Al As Az Og Or Ir Ig

UDAKO OPORRAK

Urria

Al As Az Og Or Ir Ig

Futbola eta saskibaloia

Azaroa

Al As Az Og Or Ir Ig

**Igeriketa eta uretako
jolasak**

Abendua

Al As Az Og Or Ir Ig

**Mahai jokoak:
ajedrez, karta
jokoak, partxisa eta
gabonetako
apaingarriak egin**

ASTEKO PROGRAMA:

Programa honetan astero egingo diren kirol zehatzak daude eta eta ordutegia aldaezina izango da, urte guztian zehar asteko programa berdina izango da. Erabiltzaileek kirol bat edo gehiago aukeratu ditzateke.

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
Futbola 17:00-18:30	Igeriketa 18:00-19:00	Futbola 17:00-18:30	Saskibaloia 16:00:17:30	Dantza 18:00-20:00
Saskibaloia 19:00-20:00	Dantza 19:00-21:00			

EKINTZA OSAGARRIAK:

Horretaz gain, hilean behin elkarteko familia guztiekin mendira txangoak egingo ditugu.

Urtean behin, Abenduko azkeneko igandean lasterketa solidarioa egingo dugu, bertan nahi duenak parte hartu dezake.

Hiruhilekoa bukatzen denean festa bat egingo dugu familiekin. Festan familia bakoitzak jateko zerbait ekarriko du, eta entrenamendua bukatzen denean egingo dugu, musikarekin batera. Festan zozketa bat egingo da beti, non bertan kiroleko arropa zozkatuko da.